# EZ DA ERRAZA, KATAGORRI!

Testua: ELISA RAMÓN

Irudiak: ROSA OSUNA

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE




Kartoi gogorrean egina. 22 x 22 cm. 40 or. 13 €.

IRAKURKETA PROGRAMA NAZIONALA (SEP México) - 2005

**Ez da erraza, katagorri!** (euskara)
ISBN 978-84-7681-987-6. Autore liburuak. Lehen irakurleak.
**¡No es fácil, pequeña ardilla!** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-311-1. Obras de autor. Primeros lectores.
**Non é fácil, pequeno esquío** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-183-4. Demademora.
**No és fàcil, petit esquirol!** (katalana)
ISBN 978-84-16804-15-3. Obres d'autor. Primers lectors.
**Não é fácil, pequeno esquilo!** (portugesa)
ISBN 978-972-8781-98-9. Obras de autor. Primeiros leitores.
**Non è facile, piccolo scoiattolo!** (italiera)
ISBN 978-84-8464-225-1. Gli albi d'autore. Primi lettori.

- **Gaiak:** heriotza, txera eta afektuak.
- **Adin egokia:** 5 urtetik gora.
- **Nabarmentzeko modukoa:** doluaren tratamendua; oroitzapenak, sentimenduak, hazkuntza emozionala; «Amama eta aitita», «El hilo» eta «Un regalo diferente» liburuen egile bera.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/ez-da-erraza-katagorri-eusk

Katagorri txikia triste zegoen.
Ama hil berria zuen, eta pena handia zeukan.
Ez zuen uste berriz zorionekoa izango zenik inoiz.
Aitak maitekiro xukatu zizkion malkoak, kontsolatu nahian...

Lehen begiratuan, baten batek pentsa lezake literatur eta arte proposamen honekin haurrek ezinegona sentitzen ahal dutela, baina, katagorri txikiari gertatzen zaion bezalaxe, haurrek oso modu naturalean bizi dute heriotzaren esperientzia.
Eta erantzunak bilatzen dituzte. Fantasiak ematen duen distantzia lagungarria da, oinarrizkoa, haurrek nolabait uler dezaten maite dituzten horien desagerpena.

Istorio goxoa da, samurtasunez eta sentiberatasunez betea, gai sakon eta nahitaez jorratu beharreko gai honetarako atea irekitzen duena. Gainera, iradokizun irekiak eta lasaigarriak eskaintzen ditu, bizitzak aurrera egiten duela nabarmentzen dutenak.

Elisa Ramónen istorioan doluaren osagai guztiak ageri dira: hasierako haserrea eta sumina, besarkadaren eragin sendagarria, oinazearen negar-intziriak, bakardadea, eta, nola ez, oreka emozionala maitasunaren eta oroitzapenen bidez berreskuratzen den unea. Rosa Osunak, ur-margoak, argizariak eta lapitzak nahasiz, irudi soil eta samurrak lortzen ditu. Nabarmentzekoa da nola asmatzen duen falta den pertsona irudikatzen, eta osagai sinboliko batzuek nola aberasten duten irudiz lagundutako irakurketa.

## Elisa Ramón

(Bartzelona, 1957)

Zuzenbideko Fakultateko ikasketak hasi bazituen ere, antzerkiaren arlora pasatu zen, eta, hartan, denetik egin zuen: antzezle, makinista, oroitarazle, kudeatzaile, zuzendaritzako laguntzaile eta haurrentzako testuen egokitzaile. Bere literatur sormen-lanak gehienbat gazteentzat egin ditu, Timun Mas, Ángulo edo Edelvives argitaletxeetan kaleratuak.

## Rosa Osuna

(Segovia, 1961)

Madrilen bizi da, eta lana han egiten du. Arte Ederretako lizentzia du. Zenbait urtez diseinu grafikoan, publizitaterako irudigintzan eta animazioan aritu eta gero, gaur egun umeentzako irudigintza du espezialitatea. Album irudidun batzuen egilea da, eta hiru dimentsioko pertsonaiak sortzen eta modelatzen jarraitzen du, mota guztietako proiektuetarako... «Amama eta Aitita» izan zen bere lehenbiziko album irudiduna, KALANDRAKAk argitaratua. Gerora, beste hauek argitaratu zituen: «Ez da erraza, katagorri!», «El oso fabuloso», «Un regalo diferente» eta «El hilo».
http://www.pinterest.com/rosaosuna2




www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com